

## BARIKU SANTUA

Olerkia dator odoletan  
Bariku Santu onetan...  
gorrotoa ta maitasuna  
arratsaldeko seiretan.

Asarrez, gizona itsutu zan.  
Petralkeria nagusi.  
Zegaz illuntzen zara, gizona,  
zerk nai zaitu galdu-azi...?

Ez al dozu ikusten, onean,  
itzez eta egitetan,  
gaisoak osaunaren billa  
euren gorputz zaurietan...?

«Ikutu eta osatuko naz»  
fedea esaten eutsen;  
bai, andrea, Jainko indarra eukan:  
zuk, gogoz, ikutu zeuntsen.

Olerkia egon lagun artan;  
indar, maitasun argia;  
edertasuna, berez, erion  
ta illarentzat bizia.

Alabearrez, gizonak, gogor,  
gaiztakeriz moskortuta,  
Jainko gizonduaren odola  
nai eben ixurita.

Santutasun bera iltea zan  
traketz areen atsegiña;  
itsutasuna, gogorkeria  
arrokeriak egiña.

Olerkirik, iñun, izan ba'da,  
bizi, egon odoletan;  
Kalbario mendian zer egon...?  
eguzkia il seiretan...

Gizonak, gogor, itz lapurretan,  
arriak erdibitzean...  
mundua salbatu eban Kristok  
biotz maitasun garrean.

Pilato agintzaille koldarra,  
abade-nausi maltzurra,  
zein da ba zuen gogo aierra...?  
Barnean dozuon arra...?

Gorrotoa zan gizon aldetik,  
maitasuna Kristogandik,  
errukiak askatu dau lurra,  
ots, gaiztakeriegandik.

Lurrak edegi ziran dardaraz.  
Aurreko illak berbiztu,  
nork nor il ete leiken munduan,  
lurrak ezin dau sinistu.

Lurrak ez dau izan olakorik.  
Gizonek Egillea il.  
Geroztik itxaropena ba-dau,  
zerura begira dabil.

PAULIN

## ARRANTZALE

## AR R U N T A

## DATORRENEAN

Gure etxean aitek itxasoan lan egiten  
dau eta orregaitik gogapenak, ametsak,  
poztasunak eta naigabeak ez dira beste  
etxe batzuelakoak.

Gizona itxasontzian dagonean gure  
gogapenak beragaz dagoz umetxuok  
oera doazanean beti-beti otoitz egiten  
dabe euren aitagaitik.

Gure bizitza ederra da? Bai ederra da  
baiña ez beti, etxera datorrenean oso  
ederra da baiña gero itxasaldera doa-  
nean naigabe aundi bat biotzean dauka-  
gu.

Laster etorriko da? Ez dakigu. Beti  
ondo etorri daitela gura ta uste dogu.

OLEAGA'tar Karmele

GURE EREDU  
(IRUXO'TAR I MANOL)

*Gaur euskotar guztiak gure barrua sakondu dogu Imanol'en bizi-  
tza jatorraren aurrean.*

*Ori da GIZON izatea. Lagunak maitetu, ori guztiok egiten dogu,  
baiña etsai diranak maitatzea, ori da gizonak izan leikean zorionik  
aundiena. Eta orixe izan zan Imanol'en biziera.*

*Gure aberkide onen biotzean ez egoan gorrotoarentzat lekurik,  
naiz bere aberri maitearen etsaiak izan, guztion gainetik, gizona maite  
eban eta gizonaren alde laguntzarik ez eban ukatu.*

*Ikasi bide dagigun orretatik ibiltzen.*

*Orrelako gizon asko gendukez gure aberri gaixo onetan: Zelako  
gentza edo bakea! Zelako alaitasun zoragarria guztiontzat!*

*Ez ete dogu ba urratz edo pausu bardinbako ori emoteko indarrik  
izango?*

*Ori gure gain dago. Eta au egiten laguntzeko, ain bearra izango li-  
tzake gure egiteak, edozelakoak, gure buruari gaizki egiñaz, damutuaz,  
eta ondo egiteko indar barriak artuaz.*

*Ba-dakigu etsaia beti or daukagula, beti txarrera eroan naiaz, bai-  
ña gure biotzak ba-dauke indarra non artu, Imanol'ek artzen eban lez.*

*Goi-aldera begiratu bear da, andik datorkigu maitasuna, ontasu-  
na, ta lagun urkoa gure buruak lez maitatzeko agindua ta indarra.*

*Imanol'ek irakatsi dauskun bideari jarraitzen ba'datsogu, gure  
Euzkadi zorionsua izango da.*

*Maitatu daginguzan ba lagunak, maitetu dagiguzan etsaiak: Ez  
dakie zer egiten daben-eta.*

ONINTZE